

AIZEA TA ILLARGIA

Ozkarbi, Illargia, amandrea zerupean zear, bere bete-betean. Aizea bazterrak astindu naita; inortxok jakin barik putz-egin nai. Illargia eukan beti begira, ta etxakon atsegin. Alako baten bota eutson, gogaturik:

—Putz egin bear daunat, amandre ziztrin; gogotik egin be. Ia orre-
la i nigandik aldendutea lortzen dodan, eten barik begira zaukadaz eta.
Begi-luze ori, baztertu gura aunat neure bidetik.

Eta putz eta putz aizeak, indartsu be indartsu illargiari. Eta une
atantxe, au mirarial!, odei batek eskutatu eutson. Etzan agiri gau-aman-
drea. Aizeak orduan, arro samar:

—Noz-edo-noz, askatu naz illargi gogaikarriagandik! Au ondo! Neuk
irabazi dot. Eta gogor be gogor putz egin eban barriro, sur-aizeka.

Gero, laiño artean, loak artu eban aizea... Nasai egoan. Baiña, ontan
itxartu da; dardaraz dago. Asarre... Onela diño:

—Memela ausart ori, or barriro be. Zoro! Illargi alua! Barre-karka-
raz dagola dirudi! Alan ete da?

Eta putz egian gau ta gau aizeak, putz indartsu gau-emandrearen
aurka. Ak, orraitino, ezti ta zabal jarraitzen zerupean. Baiña, arilduaz
joian, meetu ta maskartuaz; gautik gaura gitxituaz. Eta aizeak berekiko:

—Ederto! Ba-doa pixkaka urtuaz. Gau hakotxean zati bat kentzen
ba'dautsat, laster naz beragandik askatua.

Illargia izan be, gau batean, oso me ta zingil agertu zan; izpitxo bat
zan bakar-bakarrik. Il-agiñean egoan nunbait. Eta aizeak alai:

—Beioaz nire naigabeak. Au poza! Gogaikarriaren begiak ez daustie
geiago alamenik ekarriko. Beste ufadatxo bat eta arenak egin dau be-
tiko.

Eta putz dagi adore biziz. A itza! Putz eta putz lertu arte. Ta illargia
joan zala ikusirik, «Irabazi dot!» deadarka asi zan.

Baiña gautik gaura, len lez, egunari jarraika ebillen... Ta gau batez
zerbaitek dardaraz jarri eban aizea. Zer ete? Aizeak, barriro, kexaz:

—Au nekea! Ostera be zeruan agertu dala dirudi nire arerio zanta-
rra. Egia ete?

Bai, egia zan. Apurka apurka aziaz doa zeruan illargia, amandre
zabala. Aizearen estura! Eder, zuri, len baizen eder ta zuri, ara illar-
gia. Azi ta azi, ta aziaz doala, argi dagi diztiratsu; argi egiten dau, bai,
odeiak eta aizeak azpiratuaz.

Orain ez dau putzik emoten aizeak. Lotsa gorritan dago: etsaiak ira-
bazi dautsa jokua. Ta oindiño be, irribarre maltzurrez zigortzen dau.
Aize gaxoak ez bai daki zelan dabillen illargia, joan eta etorri bere bur-
di apaiñean; ez daki, ez, aizeak, gau-amandreak zelan, mende askuak
dirala, begiratzten dauan zerutik lurrera, beti nekegaitz, gizakume ta
aizeen lepotik barre egiñik, len, orain eta beti.

Tinkatzaille gaizto orrek
ez egizu, arren,
aizeak legez jardun
inortxo zigortzen.

